



A K T A

Udalbatzarraren ohiko bilkura

EGUNA: 2003ko uztailaren 29a.

LEKUA: Udaletxeko Udalbatzarraren aretoa.

DEIALDIA: Lehena **HASIERA-ORDUA:** 19:05 **AMAIERA-ORDUA:** 19:40

BERTARATUAK:

Alkatea

Mirari Arruabarrena Elizalde

Zinegotziak

Eneko Olariaga Arruti, Eugenio Cotado Iturain, Noemi Ostolaza Arkauz, Andoni Sarasua Oliden, Maria Elena Legarra Alfaro, M. Jose San Sebastian Aranburu, Ramon Etxeberria Aldaz, Martxiel Genoba Solaberrieta, Aurora Azkue Mujika eta Jesus Jose Rodriguez Pousa.

Idazkari-Kontuhartzailea

Jon Carrera Jauregi

Aztergai zerrenda

- 1.- Behin betikoz onartzea, egoki bada, Kreditua Aldatzeko 2/2003 espedientea. Kreditu aldaketa honako modalitatean egin da: kredituaren inkorporazioa.
- 2.- Onartzea, egoki bada, Kreditua aldatzeko 3/2003 espedientea. Kreditu Aldaketa honako modalitatean egin da: Ezohiko kredituak.
- 3.- Onartzea, egoki bada, Kreditua Aldatzeko 4/2003 espedientea. Kreditu Aldaketa honako modalitatean egin da: Kreditu gehigarriak.



- 4.- Onartzea, egoki bada, LKS enpresak egindako udaleko lanpostuen balorazioa eta eginkizunen eskuliburua.
- 5.- Onartzea, egoki bada, Udaleko lanpostuen balorazioa eta eginkizun eskuliburua ezartzeko plana.
- 6.- Ahalmen zabala ematea, egoki bada, alkateari, beharrezko agiri publiko zein pribatu guztiak izenpetu ditzan, Orioko Arau Subsidiarioen Aurrerakineko 8. sektoreko —Muntoa— mugen barruko lurren lagapena egiteko Udalari. Lur horietan futbol eta sofbol zelai berriak egitea aurreikusita dago.
- 7.- Eskariak eta galderak.

Esan-eginak

1.- BEHIN BETIKOZ ONARTZEA, EGOKI BADA, KREDITUA ALDATZEKO 2/2003 ESPEDIENTEA. KREDITU ALDAKETA HONAKO MODALITATEAN EGIN DA: KREDITUAREN INKORPORAZIOA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren ganean geratzen da eta, idazkari-kontuhartzaileak egindako txostena ikusita, eta 2003ko uztailaren 23an egindako Hazienda eta Pertsonaleko Batzorde Informatzaileak emandako diktamenaren bitartez egindako proposamenez, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ**, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin (11 baiezko boto):

BEHIN BETIKO ONARPENA EMATEA Udalaren 2003ko aurrekontu propioari dagokion 2/2003 zenbakidun Kreditua Aldatzeko Espedienteari. Kreditua aldatzeko espedientearen kopurua 230.388,45 eurokoa da. Kreditu Aldaketa honako modalitatean egin da: Kredituaren inkorporazioa.

2.- ONARTZEA, EGOKI BADA, KREDITUA ALDATZEKO 3/2003 ESPEDIENTEA. KREDITU ALDAKETA HONAKO MODALITATEAN EGIN DA: EZOHIKO KREDITUAK.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren ganean geratzen da eta, idazkari-kontuhartzaileak egindako txostena ikusita, eta 2003ko uztailaren 23an egindako Hazienda eta Pertsonaleko batzorde informatzaileak emandako diktamenaren bitartez egindako proposamenez, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ**, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin (11 baiezko boto):



1.- LEHEN ONARPENA EMATEA Udalaren 2003ko aurrekontu propioari dagokion 3/2003 zenbakidun Kreditua Aldatzeko Espedienteari. Kreditua aldatzeko espedientearen kopurua 340.583,20 eurokoa da. Kreditu Aldaketa honako modalitatean egin da: Ezohiko kredituak.

2.- Espediente hori **JENDAURREAN JARTZEA**, ondoko lege arauetan ezarritakoa betez: Toki Haziendak erregulatzen dituen abenduaren 28ko 39/1988 Legearen 158. artikulua eta 150. artikulua. Espediente hori ondoko arauen arabera jarriko da jendaurrean:

Erakutsita dagoen lekua: Kontuhartzaitza.

Aztertzeko eta, hala badagokio, erreklamazioak jartzeko epea: hamabost laneguneko, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarkia argitara eman eta ondorengo lanegunetik kontatzen hasita.

Honako hauek jar ditzakete erreklamazioak: Abenduaren 28ko 39/1988 Legearen 151.1 artikuluan aipatutako interesatuek nahiz akordioaren aurka bozkatu zuten udalbatzarkideek.

Inpugnatzeko arazoak: Abenduaren 28ko 39/1988 Legearen 151.2 artikuluan adierazitakoak, eta ordenamendu juridikoaren arau-haustea.

Erreklamazioak aurkezteko: udaletxeko erregistro nagusian, bulego orduetan.

Erreklamazioa Udalbatzarrari zuzenduko zaio.

Adierazitako informazio epea igaro eta inolako erreklamazio edo oharpenik egin ez bada, Kreditu Aldatzeko Espediente hori behin betirako onartuko da, beste erabakirik hartu beharrik gabe.

3.- ONARTZEA, EGOKI BADA, KREDITUA ALDATZEKO 4/2003 ESPEDIENTEA. KREDITU ALDAKETA HONAKO MODALITATEAN EGIN DA: KREDITU GEHIGARRIAK.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, idazkari-kontuhartzaileak egindako txostena ikusita, eta 2003ko uztailaren 23an egindako Hazienda eta Pertsonaleko batzorde informatzaileak emandako diktamenaren bitartez egindako proposamenez, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ**, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin (11 baiezko boto):

1.- LEHEN ONARPENA EMATEA Udalaren 2003ko aurrekontu propioari dagokion 4/2003 zenbakidun Kreditu Aldatzeko Espedienteari. Kreditu aldatzeko



espedientearen kopurua 15.879,67 eurokoa da. Kreditu Aldaketa honako modalitatean egin da: Kreditu Gehigarriak.

2.- Espediente hori **JENDAURREAN JARTZEA**, ondoko lege arauetan ezarritakoa betez: Toki Haziendak erregulatzen dituen abenduaren 28ko 39/1988 Legearen 158. artikulua eta 150. artikulua. Espedientea ondoko arauen arabera jarriko da jendaurrean:

Erakutsita dagoen lekua: Kontuhartzailletza.

Aztertzeko eta, hala badagokio, erreklamazioak jartzeko epea: hamabost lanegunekoa, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarkia argitara eman eta ondorengo lanegunetik kontaktzen hasita.

Honako hauek jar ditzakete erreklamazioak: Abenduaren 28ko 39/1988 Legearen 151.1 artikuluan aipatutako interesatuek nahiz akordioaren aurka bozkatu zuten udalbatzarkideek.

Inpugnatzeko arrazoiak: Abenduaren 28ko 39/1988 Legearen 151.2 artikuluan adierazitakoak, eta ordenamendu juridikoaren arau-haustea.

Erreklamazioak aurkezteko: udaletxeko erregistro nagusian, bulego orduetan.

Erreklamazioa Udalbatzarrari zuzenduko zaio.

Adierazitako informazio epea igaro eta inolako erreklamazio edo oharpenik egin ez bada, Kreditua Aldatzeko Espediente hori behin betirako onartuko da, beste erabakirik hartu beharrik gabe.

4.- ONARTZEA, EGOKI BADA, LKS ENPRESAK EGINDAKO UDALEKO LANPOSTUEN BALORAZIOA ETA EGINKIZUNEN ESKULIBURUA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da, eta 2003ko uztailaren 23an egindako Hazienda eta Pertsonaleko batzorde informatzaileak emandako diktamenaren bitartez egindako proposamenez, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ**, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin (11 baiezko boto):

ONARTZEA LKS enpresak egindako udaleko lanpostuen balorazioa eta eginkizunen eskuliburua, honako zehaztasunak eginez:

a) 4. faktorean (Ardura operatiboa/eragina) kalifikazioa bigarren mailatik hirugarrenera igotzea onartzen da honako lanpostuetan: jendaurreko administraria;



erabaki organoetako, alkatetzako eta pertsonaleko administraria; kontu-hartzailetzako administraria; errenta eta diru bilketako administraria; eta hirigintzako administraria. Aldaketa horrekin, 275 puntu ditu lanpostu horietako bakoitzak eta, beraz, EUFALEBAko 12. maila dagokie.

b) Artxibozain lanpostuan, 1. faktorean (Eremu profesionala) kalifikazioa hirugarren mailatik laugarrenera igotzea onartzen da. Aldaketa horrekin 275 puntu ditu lanpostuak eta, beraz, EUFALEBAko 12. maila dagokio.

c) Eginkizun askotarako langilea lanpostuan, lanaren ezaugarri bereziak kontuan hartuta, bi maila igotzea onartzen da, plus gisa, goragoko kategoriako lanak egiteagatik. Ordainsaria, beraz, EUFALEBAko 10. mailari dagokiona izango du lanpostuak, eta hori finkatuta geratzen da.

d) Zerbitzu askoren arduraduna lanpostuan, 4. faktorean (Ardura operatiboa/eragina) kalifikazioa bigarren mailatik hirugarrenera igotzea onartzen da. Aldaketa horrekin 365 puntu ditu lanpostuak eta, beraz, EUFALEBAko 14. maila dagokio.

e) Musika eskolako administrari laguntzailea lanpostuan, 4. faktorean (Ardura operatiboa/eragina) kalifikazioa lehen mailatik bigarrenera igotzea onartzen da. Aldaketa horrekin 125 puntu ditu lanpostuak eta, beraz, EUFALEBAko 8. maila dagokio.

f) Udaltzainburuaren eta udaltzainen artean tarteko lanpostu baten (kabo baten) sorrera bultzatzea onartzen da, udaltzainburuari laguntza emateko eta haren ardura batzuk hartu ahal izateko: laneko txandak estaltzeko, jaiegun eta oporretan eta abar. Lanpostu hori, ahal dela, barne promozio bidez estaliko da.

5.- ONARTZEA, EGOKI BADA, UDALEKO LANPOSTUEN BALORAZIOA ETA EGINKIZUN ESKULIBURUA EZARTZEKO PLANA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren ganean geratzen da, eta 2003ko uztailaren 23an egindako Hazienda eta Pertsonaleko batzorde informatzaileak emandako diktamenaren bitartez egindako proposamenez, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ**, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin (11 baiezko boto):

ONARTZEA Udaleko lanpostuen balorazioa eta eginkizun eskuliburua ezartzeko plana. EUFALEBAko maila berrien ondorioz, ordainsarrietan aldaketaren bat duten lanpostuetan, aldaketa hori 2003ko uztailaren 1etik aurrera hasiko da aplikatzen. Hala ere, tarteko epe bat zehazten da, sei hilabetekoa, 2003ko uztailaren 29tik aurrera kontatzen hasita, lanpostuei izendatutako eginkizun berriak osorik eta behar bezala betetzen direla kreditatzeko. Behin sei hilabeteko epe hori pasa eta gero,



zerbitziburuek eginkizun horien betetze mailari buruzko txostena egingo dute. Eginkizun berriak osorik eta behar bezala betetzen ari badira, gaurko egunez Udalbatzarrak onartutako EUFALEBAko maila berriek behin betiko izaera hartuko dute; bestela, lehenera buelta daitezke. Hori guztia Udalak eraturata daukan Lanpostuen Baloraziorako Mahai Paritarioan alde zuzenetik gaia aztertuta egingo da.

6.- AHALMEN ZABALA EMATEA, EGOKI BADA, ALKATEARI, BEHARREZKO AGIRI PUBLIKO ZEIN PRIVATU GUZTIAK IZENPETU DITZAN, ORIOKO ARAU SUBSIDIARIOEN AURRERAKINEKO 8. SEKTOREKO —MUNTOA— MUGEN BARRUKO LURREN LAGAPENA EGITEKO UDALARI. LUR HORIETAN FUTBOL ETA SOFBOL ZELAI BERRIAK EGITEA AURREIKUSITA DAGO.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU AHO BATEZ**, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin (11 baiezko boto):

AHALMEN ZABALA EMATEA alkateari, beharrezko agiri publiko zein pribatu guztiak izenpetu ditzan, Orioko Arau Subsidiarioen Aurrerakineko 8. sektoreko —Muntoa— mugen barruko lurren lagapena egiteko Udalari. Lur horietan futbol eta sofbol zelai berriak egitea aurreikusita dago.

7.- ESKARIAK ETA GALDERAK.

Ez ziren izan.

Aztergai zerrendatik kanpo beste erabaki bat hartu du Udalbatzarrak, gaia alde zuzenetik eta **AHO BATEZ** urgentziazkoa izendatu ondoren.

8.- BEHIN BETIKOZ ONARTZEA, EGOKI BADA, ORIO GARATZEN SL ERANTZUKIZUN MUGATUKO SOZIEKATE URBANISTIKOAREN AZALPEN TXOSTENA ETA ESTATUTUAK.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU AHO BATEZ**, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin (11 baiezko boto):

BEHIN BETIKOZ ONARTZEA Orio Garatzen SL erantzukizun mugatuko sozietate urbanistikoaren azalpen txostena eta estatutuak.



ORIOKO UDALA

ORIO (GIPUZKOA)

Udalbatzarraren bilkurako akta • 2003/07/29

Horrenbestez, bilkurari amaiera ematen zaio eta, erabakitakoa jasota gera dadin, nik, Idazkaria naizenez, akta hau egiten dut Alkatearen ontzat emanarekin.

ALKATE-PRESIDENTEA

IDAZKARIA,